

- **Entzutekuak:** Arrate Plazaola, bularreko minbizian aditua
- **Kirola:** Preferenteak Ohorezko mailara igotzeko azken aukera du

soraluzeko
hamabostekaria **264.** alea
2012ko maiatzaren 11n

pil-pilean



ZAPATUETAKO AZOKA
Bertako produktuak eskura





IÑAKI AMUATEGI



OSKAR ELIZBURU

GALDU VS IRABAZI

Ametsak gauzatzea gauza bakar batek egitten dau eziñezko; porrot egitteko bildurrak.

Paulo Coelhoen hausnarketa honekin hastia pentsatu juat Oskar. Galtzaille eta galtzian inguruan idaztea ez jaok oso ondo ikusitta, mundua, irabazliena dala erakusten jeskuek txikittatik eta. Eskolan, ikastia baiño, aprobazia dok kontua; lanian, zetan lan egitten duan baiño, zenbat irabazten duan inporta jok eta lanik ez badaukak zer esanik ez, etorkizun barikua eta galtzaille garbixa haiz. Kirolian be, horixe dok inportantiena, besterik ez jaok, galdu ala irabazi? Oso gertu juagu horren adibidia, 3. finalera iritsi ostian, egindako balentriari baiño, porrotari emoten jetsagu garrantzia. Eutsi goixari eta emoixok Lasku!

Kapitala eta irabazietan oinarritutako munduan ez jaok besterik, garailliena ei dok mundua eta holan saltzen joskuek egunero.

Hizkuntza kontuetan be, beste horrenbeste gertatzen dok, mintzaira garailien menpe bizi gaittuk: inglesa, txinua, frantsesa, espainola... Inperiuen berbetia dok nagusi munduan eta iñori ez detsak entzungo inglesa inposatzen deskuenik, inglesa, espainola moduan, ikasi biharrekuak dittuk eta. Zenbat eta zenbat euskaldun familixetan ez ete dok gertatu hori; etxekua baztertu eta hobia dalakuan, erderia erakutsi. Halan da be, Churchillek esanda: arrakasta; behin eta berriro porrot egin eta itxaropena galdu barik ibiltzia ei dok. Hala ete Oskar?

“

“Inperiuen berbetia dok nagusi munduan”

Iñaki Amuategi

“Hizkuntzetan, pilotan moduan, irabazi edo galdu besterik ez jaok”

Oskar Elizburu

”

Esku-eskura etorri jatak pelotakadia, Txisto! Momentua dok, gaiñera, pelotari gogoz emoteko. Aurreko barikuan aurkeztu jittuan Kontseilluak euskeriaren marra gorrixak eta gutxienekuak argi laga jittuk. Hizkuntza normalizatzeko ezin geikek ibili eskumiñez dagan pelotarixaren eran, bildur-

rrez, tantua egitteko aukera barik. Ezin geinkek ibilli beti aurkako pilotarixaren aldekuak aukeratzen daben pelotiakin. Baiña hala ibili gaittuk eta gabiltzak urte askuan! Partidua ondo jokatzeko ezingaittusakian motz geratu, bestela ez jaok partidarik! Eta irabazteko, edo jokuan txukun ibiltzeko behintzat, sakia nundik eta noraino egin bihar dogun argi izan bihar juagu. Euskararendako hizkuntza politikia guk erabaki bihar juagu, kanpokoen

erabaki eragiñik barik, gure frontoian eta gure arauekin; epaillia kontrakua badokzeiñendako dudako tantua? Eta Hizkuntza Politika Eraginkorra euskararen esparru guztietan zabaldu bihar juagu; orain atzealdera, arrimatuta eta hurrengo zabalera eta motzago. Euskararen frontoi osua erabilli bihar juagu, Euskal Herri osuan jokatu bihar juagu. Euskarak lehenasunezkoa izan bihar dok; ezinbestekuak dittuk entrenamenduak, luzaketak, pesak eta dieta egokixak sasoiaren egoteko. Eta, gehixago, euskeria danok ezagutu biharra jaok. Eskola-kirola ezinbestekua dan moduan ume guztiek kirolak ezagutzeko, euskeria danok jakin eta erabili daigun bidia jarri biharra jaok.

Hizkuntzetan, pilotan moduan, irabazi edo galdu besterik ez jaok, ez jaok enpaterik, baiña ondo jokatzia ere asko balixo jok. Gutxienez Laskuk ipiñi daben neurriko gogua eta prestaketa jarri daigun datozen urtietan; finala jokatzeko moduan egotia dok helburua, aukeria eukitzia eta, jakina, hurrenguan irabaztia!

Goguan hartzeko

“Bada sasoi euskaldunak sasitik urtetzeko”

Unai Larreategi (EHE)



GUTUNAK

2012 ko aurrekontuak

2012 ko aurrekontuen bozkan abstenitu egin gara. Gure abstentzioari esker aurrekontuak onartu egin dira, aurreko bi urteetan bezala. Pentsatzen dugu egoera ekonomiko delikatu honetan erantzukizunez jokatu behar dugula herriarekiko. Gure ustetan azkenengo datu ekonomikoak eskuartean edukita esan dezakegu udala "kiebra teknikoan" dagoela. Guzti hau horrela izanda ez al du udal gobernuak kontuen inguruko auditoriarik egin behar orain dela lau urte egin zuen bezala?

Aurtengo aurrekontuen eztabaida, eztabaida atipikoa iruditu zaigu. Ez da hitz egin zer egin behar den urtean zehar, zer partida eta zerbitzu murriztu behar diren baizik. Aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuz 328.000 eurotan murriztu da 2012koa.

Zeintzuk izan dira murrizketak jasan dituzten zerbitzuak eta partidak? Kiroldegiko zerbitzuak, Udaltzaingoa, udal langileen soldatak izoztu, Debegesako kuoten ordainketa atzeratu, kale garbiketako plaza bat amortizatu... etab. Bestalde zerga eta tasei dagokionean %3ko igoera jasan dute. Nabarmenduz kiroldegiko kuotek %12ko igoera izan dutela eta lehen aldiz ludotekako zerbitzua ordaindu beharko dela, 40 euro urtean. Batetik, zerga bitartez dirua bildu eta bestetik udal zerbitzuak murriztu. Hau al da BILDUK Soraluzerentzat bultzatzen duen politika ezkeriar eta aurrerakoia? Inbertsioen kasuan ez da

ezer nabaririk aurreikusten. Kiroldegiko gestioak; bereziki kezkatzen gaitu. 2009an ezker abertzaleak eta EAK erabaki zuten kudeaketa zuzena burutzea. Zeintzuk izan dira erabaki honen ondorioak? 2010an; 220.632, 44 eurotako defizita, 2011an; -181.625,06 euroko defizita, 2012an kiroldegiko zerbitzuen murrizketa nabaria. Pentsatzen dugu egoera hau jasangaitza dela.

2011ko Foru Funtzari dagokionean; Udalak, Aldundiari 285.000 euro itzuli behar dizkio kontzeptu honetatik. Kontutan edukita udaletxeko egoera ekonomikoa, egon al da malgutasunik? Ez, 2011ko urtean bueltatu behar da guztia. Seguruenik kreditu bat eskatu beharko da eskatutakoa itzultzeko, honek suposatzen duen interes ordainketarekin. Noren interesak babesten ditu udal gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak edota Soraluzeke herritarrenak?

Zinegotzien ordainsarien kasuan, oposizioko alderdiek aurkezturiko proposamena onartu zen.

%25eko murrizketa aplikatzea.

Jakin berri dugu BILDUKo zinegotziek legealdi hasieran uko egin zioten ordainsariak kobratuko dituztela atzerapenarekin, konkretuki 13.000€

Azkenik, pentsatzen dugu, zoritxarrez, legealdi gogorra izango dela oraingoa. Gure taldea ordea prest dago egoerari buelta emateko, Soraluzeke eta soraluzekearren ongizatearen alde lan egiteko. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Soraluzeko EAJ/PNV taldea

 PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonia:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Arianne Unamuno
3 minutu

Nere kalkuluen arabera, Sorraluzen 3 minututik behin birziklatu ezin dan eta urte askuan degradatuko ez dan plastikozko pardel bat botatzen dogu zakarrontzira.

3 minutuan telazko pardelak saltzen dituduen guniak topatu zeinkez interneten, asko eta asko. Pardel tradizionalak, modernuak, txikixak, haundixak, taila bakarrekuak, negurakuak, udarakuak, kolore eta ehun mota askotakuak, kanpuan zein Euskal Herrixan egindakuak, barriak, bigarren eskukuak... Behin erosi eta ahaztu!

3 minutu gehixago tardatuko dozu umiari pardela aldatzen, 3 minutu gehixago garbigailuan sartu, lehortzeko esegi eta jasotzen. Baina 3 minutu guzti horreri eskerrak, mokorreko displaxia prebenituko dozu seme edo alabian eta askoz zabor gutxiago sortuko. Eta 3 minutuan emongo dotsazuz erropatxuekin batera zure senide edo lagunari pardelak, bere seme-alabekin erabili deizezen (duan!!).

Ipurdiz-ipurdikua proposatzen dot nik. Oparixa seme-alaben osasunandako, munduan osasunandako eta oparixa senide edo lagunendako. Zer hoberik?

3 minutuan hartuko dozu aldaketarako erabakixa? (Nahi badozu, 3 minutuan azalduko dotsut zela lortu eta erabili, oso erreza da).

((ENTZUTEKUAK))

Arrate Plazaola, medikua eta bularreko minbizian aditua

Arrate Plazaola Donostiako Onkologikoko doktorea da. 34 urte daramatza bularreko minbizia ikertu, tratatu eta sendabideak bilatzen. Norbere bularrak aztertzea diagnostiko goiztiarra egiteko ezinbesteko erreminta dela dio. Izan ere, urtean 1.500 emakumek pairatzen dute bularreko minbizia EAEn eta horien %80a sendatzen da.

Gaixotasun moduan, zer da zehazki bularreko minbizia?

Bularreko zelulak gaiztotu eta tumoriak sortzen dituduenian garatzen da. Aittatutako zelulak gorputzeko beste ataletara zabaltzeko gaittasuna dauke, garunera edo biriketara.

Minbizixari aurre egiteko ze tratamendu erabiltzen da?

Kirurgia da modurik arruntena. Gaur egun, tratamenduak helburu zehatzak ditudue eta osasuntsu mantentzen diran ehunak ez dira erazutzen. Bularra erazutzen danean, mastektomiaz ari gara. Minbizixa kentzen danean, baina bularra ukitzen ez danean, kirurgia kontserbatzailea erabiltzen da. Erradioterapia, kimioterapia edo hormona bidezko terapia be erabiltzen dira.

Prebentzinua zegaittik da garrantzitsua?

Zenbat eta azkarrago diagnostikatu, orduan eta gutxiago sufriduko dau gaitza daukanak. Norbere bularrak aztertzea eta mamografiak egittia dira prebentzinaan zutabe nagusixak.



Zein adin tarteko emakumiak dauke arrisku haundixena?

Minbizixa adinangaitza da. Prebentzinarako kanpaina 49 eta 69 urte bitarteko emakumieri zuzenduta dago. 40-50 urte bittartian gutxienez 2 mamografia egittia gomendatzen da. 51tik aurrera, urtero.

Probarik egin nahi ez daben emakumieri zer esango zontseke?

Egiteko mesedez! Proba berak ez dau ezer egitten eta emaitzak bildurra emoten dotselako asko dira etxian geratzen diranak. Probia horretarako da, anomaliaren bat baldin badago, lehenbailehen tratatzeko.

Eta minbizixa antzeman dotse-neri?

Duda bare Katxalin elkartiakin harremanetan jartzeko. Minbizixa bera sufridu daben emakumiak osatzen dabe eta aukera ederra da sendatze bidian laguntza emozional zuzena jaso eta bizipenak konpartitzeko.

“Nor bere bularrak aztertzea edo mamografiak egittia derri-gorrezkua izan biharko litzake.”

Etxabe Harategia
Euskal txahalkia Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

TXURITXU
Zuekin gozatzen
943 75 24 43
Añeta - Iru - Bilka 22 behe

Elkarbizitza osasungarria helburu duen festa ikastetxean

Maiatzaren 18an Elkarbizitza Eguna ospatuko da Plaentxi Herri Ikastetxean. Eskolako irakasle, ikasle eta gurasoei zuzendutako eguna da aipatutakoa eta eskola komunitate osoa elkar eza-gutzeko eta giro atsegin eta osasungarria hedatzeko helburua du. Jolasak, tailerrak, merienda eta

dantzaldia izango dira besteak beste bertaratzen direnen gozagarri. Txokoen antolaketa egiteko edota tailerretan jarduteko herritarren laguntza behar dute antolatzaileek eta horretarako prest daudenak, 943 75 19 37 telefonora deitu dezakete. Eskerrak eman nahi dituzte aldez aurretik.

Elkarbizitza Eguneko egitaraua

16:45ean JAIALDIAREN HASIERA:

Sarreran: "ELKARBIZIKLETA" logoa osatzeko tailerra.

Behoko patioan: Jolas kooperatiboak, arrautza-jaurtiketa eta arkatza-ardatza.

Aretoa: Ikasleek urtean zehar eginiko lanen erakusketa eta bideo emanaldia.

Kanpoko patioan: Hostoetan mezuak idazteko tailerra, zuhaitzetan zintzilikatze.

Tailerrak: Aurpegi eta azazkal margotzea, henna, txotxongiloak, maskarak, papiroflexia eta pilota malabararak.

18:00etan MERIENDA

18:30etik 20:00ra DANTZALDIA, Pottoka taldearekin.



Ama saharaiak teia prestatu zuten iazko Elkarbizitza Egunean.

Soraluce Kooperatibako festa

Soraluce Kooperatibak 50 urte bete dituela aitzakia moduan hartuta 300 langile eta bazkide inguruk hartu zuten parte apirilaren 27an kiroldegian antolatutako bazkarian. Mokadu goxoez eta koktel eskusiboiez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Bazkal ostean Golden Apple Quartet taldearen emanaldiak borobildu zuen eguna.



9.000 euro gutxiago jaiak prestatzeko

Santiago - Santa Ana jaietako suziria uztailearen 25ean jaurtiko da eta festak 28ra arte luzatuko dira. Jai batzordeak programa zehazten dihardu eta azaldu digutenez 9.000 euro gutxiago izango dira aurtengo aurrekontuan. Ondorioz, programan, zenbait murrizketa egin beharko dituzte. Hurrengo batzarra maiatzaren 22an egingo dute, arratsaldeko 20:00etan udaletxeko saioaretoan. Herritar denak daude gonbidatuta.

Galtzagorriak martxa betean

Jai herriko, parekide eta parte hartzaileak antolatzearen aldeko apustua egingo du aurten ere Galtzagorri mugimenduak eta egitaraua hala izateko prestaketa lanetan murgilduta dabil. Hurrengo batzarra maiatzaren 18an izango da, 21:00etan kiroldegiko ganbaran.



Odol ateratzea Itzaropenan

Gipuzkoako odol emaitzen elkarteak udaberriko lehen odol ateratze saioa egingo du datorren barixakuan, maiatzaren 18an. Interesatuak arratsaldeko 18:30etik 20:30era Itzaropena jubilatuen elkartearen izango dute horretarako aukera. Gazteak animatu nahi dituzte bereziki odola ematera.

1962ko kintoen bazkaria

Aurten 50 urte beteko dituzten herritarrek ekainaren 9an, Txurruka jate-txean, kinto bazkaria egiteko deialdia luzatu dute. Izena eman nahi dutenek ekainaren 3a baino lehen egin beharko dute 943 75 15 81 telefonon.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Bergara

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

AURRE-MATRIKULAK: Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra
ATE IREKIAK: Maiatzak 19, 11:00etan.

Ordutegia
Maiatzak 28 eta 29, goizeko 10:00etatik 13:00etara
Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra: 8:00etatik 14:30etara
eta 15:30etatik 18:30etara.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

www.maltuna.com
imaltuna@sarenet.es




Bonbardaketa akorduan

Soraluze 1936 lan taldeak eta udalak, duela 75 urte tropa frankistek agindutako bonbardaketen gertaera lazgarria oroitzeko udaletxeko balkoian ikurrina masta erdira zintzilikatu zuten apirilaren 25ean. Gernikako sarraskia oroitzeko Euskal Herriaren irudia krabelin gorritz estali zuten eta kandelak piztu zituzten. Koaderno batean nahi zuenak bere sentimenak idazteko aukera ere izan zuen.

**Solasaldia hondakinen kudeaketaz**

Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko kide diren Ainhoa Arrospide eta Mikel Ikaratzegi hondakinen kudeaketaz arituko dira maiatzaren 29an zinean eskainiko duten hitzaldian. Zabor kudeaketa abiapuntutzat hartuta, gaur egun eztabaidan dagoen bilketa sistema izango dute hizpide. Gipuzkoako zenbait herritan ezarri den atez ateko bilketa sistema zertan datzan azalduko dute. Azalpenak eskaini ostean publikoari kezka plaza-ratzeko aukera eskainiko diote.

Argazkia topatu dute kalean

Argazki zahar hau topatu dute kalean. Bere jabea nor izan daitekeen jakin dezakeenak deitu 943 75 22 43 telefonora eta Marisagatik galdetu.



Hogei lagun gehitu dira Berbalagun egitasmora

Inoizko parte hartzerik handiena izango du datozen hileotan AEKK, udalak eta Pil-pilean Euskara Elkarteak antolatutako Berbalagun egitasmok. Azken deialdiak arrakasta itzela izan du eta lehenagotik egitasmoan parte hartzen zuten zazpi lagunei hogei bi mintzalagun berri gehitu zaizkie. Adin tarte ezberdinetako herritarrek osatutako bederatzi taldek euskararen mintzapraktika ikasgeletatik aisialdi guzuetara eramango dute. Helburu nagusia, bidelagunak eta berbalagunak elkartu eta lotsak alde batera lagata mingainak dantzan jarri eta euskara praktikatzea da. Egitasmoan parte hartu dutenek

euskaraz trebatzeko eta ikasteko bide aberasgarri moduan definitu dute Berbalagun egitasmoa. Irailan zabalduko da berriz izena emateko epea.



Berbalagun taldea elkar ezagutzen.

Hilaren 19an, Plaza Zaharra bete presoek eskubideen alde

Soraluzeko Herrira mugimenduak ahalik eta herritar gehien batu nahi ditu maiatzaren 19an ospatuko den *Goazen plazara!* ekimenean. Presoek eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzeko Euskal Herriko plaza guztietan ospatuko den jaialdia da aipatutakoa. "Plazak bete kartzelak hustutzeko" esaldia hartu dute lelo nagusi moduan eta asmoa hori da: Plaza Zaharra herritarrez betetzea. Horretarako herriko zenbait elkarte, eragile eta norbanakoren laguntza izango dute eta ekitaldi denak musika eta dantzaz lagunduta aurkeztuko dira.

Goazen plazara! egitaraua:

11:00etan MURAL MARGOKETA Plaza Barrixan
11:00etatik 13:00etara UMEGUNIA
13:00etan MUSIKA LASAIA zuzenean
Jarraian TXORIZO eta SAGARDO banaketa
13:30ean EKIMEN PARTE HARTZAILEA, dantzariak lagunduta
14:30ean BAZKARI HERRIKOIA



Plazara ekimena babestu duten zenbait herritar.

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxecko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

ZAPATUETAN AZA ETA PORRU



Osintxuarrek kantatzen omen dute: "Plaentxiarrak, berritsuak dira, azia eta porrua janda bizi dira". Eta bertakoak badira, hobe.

Eskualdeko hainbat herriri jarraituz, herriko ekoizleen produktuak saltzeko azoka ipini dute martxan, zapatu goizetan kontzejupean. Bertako merkatua indartu, salmenta zuzena sustatu eta sasoiari sasoiakoa kontsumituz, erosleek ohiturak baserriaren eta produktuen kalitatearen faboretan aldatzea da helburua.

Kaleak baserriarrek zirenean

70. hamarkadan Erregetxe zaharrera joango bagina, beste argazki batekin topatuko ginake. Dendarik ere ez zegoen sasoi haretan, baserri auzo guztietatik jaisuten ziren generoa saltzera. Postuz gainezka egoten zen, barrua eta kanpoa.

Eraikina eraitsi eta egungo merkatura aldatzean, baserriar askok laga zion kalera jaisteari, eta urteak joan ahala, Ozuma-azpi, Arizaga eta Lezarrikoek baino ez diote eutsi.

Azokak eta kontsumo taldeak, gora

Azken urteetan baserriarekiko interesa eta jasaten ari den egoerarekiko kezka azaldu dute baserriarrek

eta belaunaldi berrietako gazteek. Ermuan, Eibarren, Mutrikun, Elgoibarren eta Mendaron hainbat kontsumo talde sortu dira bertako elikagaia, sasoiakoa kontsumitu eta zuzeneko salerosketa sustatzeko. Azokak ere ugartzen dihardute: Elgoibarren hilean behin azoka egiten da, Deban merkatu txikia hileko lehen zapatueta eta Mutrikun azoka txikia hileko bigarren zapatueta.

Zapatuetan behintzat, baserrikoa

Soraluzeko nekazaritza eta abeltzaintza eredu tradizionalen gainbehera begibistakoa da. Testuinguru horretan sortu da zapatueta azoka. Udalak eta Debemenek baserriarrei beren produktuak merkaturatzeko bide eraginkor eta erreza ahalbidetu nahi izan diote proiektu honekin.

Estreinekoa joan den zapatueta egin zen eta herriko ekoizleak pozik amaitu zuten eguna, bai lekuagatik eta baita salmentengatik ere. Joera hau mantentzea izango da beraien erronka.



Irati Trebiñok hartu zuen urte hasieran Zapatutako Azoka sortzeko harremanetan jarri eta egitasmoa egi bihurtzeko beharrezko baldintzak aztertu eta bermatzeko ardura.

Elkarrizketak eta inkestak egin ostian ze inpresio jaso dozu?

Inkestetan ikusten zan bazeguala baserriko produktuak kontsumitzeko nahi bat. Nahiz basarritarrangana ez juan, gero eta kontzientzia haundixagua dago baserrikoa kontsumitzeko. Euskadiko janarixan %80xa kanpotik etortzen da, ez dogu bertako ezer jaten! Baserrixak bizirik mantentzia nahi badogu, baserriko produktua kontsumitu bihar dogu. Ez dago besterik.

Soraluzen ze modutan erosten da?

Adinekuak herrixan erostera ohittuta dare. Gaztiak berriz lanetik urten eta etxerako bidian Eroskin geratu, erosi eta etxera kotxian. Honek dira erakarri biharrekuak, hortik zapa-tuetan izatiana, eurak be juan ahal izateko.

Zela erakarri eroslia?

Produktua eskura ipini bihar jakue. Ikusi genduan bitartekarixak kentzia inportantia zala eta salmenta zuzena zala bidia. Seguridade bat ziurtatzen dotsu, badakizulako zer erosten zabizen, ekoizlia bera ezagutzen dozu...

Basarrixari funtzio anitza onartu bihar jakola dinozu.

Kriston lana egin dabe eta ez jakue aitortu izan. Gure paisajia eurak gestionatzen dabe, zabalik daren bide zaharrak eurak zabaldu dit-tue. Tradizio aldetik be, ohitturak nunbaitten mantendu badira basarrixetan izan da, auzo lana, txerri bodak...

Zer da txostenian jaso dozun elikagai burujabetza?

Herrialde bakoitzak daukan eskubidia bere elikagaiak ekoizti eta saltzeko. Gakua agroekologia da, basarrixak gi-zarteko bestelako arluekin harremanak dittuala onartzen da, batian hartzen diran erabakixak bestian eragiten dabe-la. Jasangarrixa izan bihar dau jendarte eta naturandako.

Elikadura boteria be bada.

Elikadura kontrolatzen dabenak mundua kontrolatzen dau. Munduan jateko bihar dogunan bikoitza ekoizten da! Gosez hiltzen diranak ez daukela? Guk jaten dogulako eurena dana!

Zela lagundu herrialde honek biziberritzen?

Hain zuzen gure elikadura burujabetza lortu bihar dogu, eurenaz bizi garan bittartian, ezingo dabe aurrera egin. Guretzat be kriston menpekotasuna da hori, multinazionalak hazixak kontrolatzera heltzen badi-ra nahitta be ezingo dogu landatu. Eta esaten badabe hazi bakoitzak hiru euro balixoko dabela, halaxe izango da.

Gure kontsumo ohitturak asko aldatu dira?

Oin 50 urte, familixa baten gastu haundixena elikadura bazan, gaur egun datu hori erabat bajatu da.

Sukaldian ibiltze hori be galtzen dabil, denboria eskatzen dau elikagaixak prestatziak. Bestetik, erostia, ekintza politiko bat bihurtu da. Supermerkatu baten sartzian ez dotsue esaten ze baldintzatan egin dan biharra zuk hori erostera arte. Ekologikua garestixa dala esaten da, baina beste horrek miseria produzitzen zabiz!

Zer dago horren atzian?

Adibidez tomatia urte guztian jatera ohittuta gare. Horrek suposatzen dau tomate horrek negutegixetan egin dirala, kriston energia gastatu da negutegixak bero mantentzen, milaka paperik gabeko lanian auskalo ze baldintzatan, kutsadura kimikua, pestizidak bota bihar jakuelako... eta bale, milagro, neguan tomatia daukagu. Igual hobe izango zan neguan tomaterik ez jatia.

Aipatutako dana betetzen juanda, lana sortuko luke nekazaritzak?

Nik uste dot epe luzera enplegu sortzaile izan leikela, kalidadezko lan bat, inor menpekua izan bare... Eskarixa haunditxia lortzen badogu, epe luzera jende gehixago animatuko da horretara lana sortuko dabelako.

Beste erronkarik?

Basarritarrak, udaleko ordezkariak eta nahi dabenak parte hartzeko nekazaritza mahai bat sortu nahi da txostenian jasotakuak garatzeko. Izan be, elikagai burujabetzari baietz esan bihar dotsagu, bestela esan nahi dau oin arte moduan kontsumitzen jarraituko dogula eta horrek ez dauka etorkizunik.

“Ohitturak nunbaitten mantendu badira basarrixetan izan da”

“Elikagai burujabetzari baietz esan bihar dotsagu”

“Gosez hiltzen diranak ez dauke guk jaten dogulako eurena dana”



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Murrizketen eta erreformen sasoi honetan, osasunerako eskubidea mugatu du Espainiako Gobernuak: paperik ez daukaten etorkinei ez diete zerbitzurik emango abuztuaren 31tik aurrera; Euskal Herrian 21.500 lagun eragingo die neurriak.

Zer irizten dotsazu etorkineri osasun asistentziarik ez emotiari?

NORMELENA LIRA



Injustua da oso, danok daukagu osasun asistentzia jasotzeko eskubidia. Berrero be pentsatu biharko leuke, ez bazaittue kontsultan hartzen, ze pasatuko da?

Eman zure iritzia sarean



KHADEJA BENSLAM JABER



Zegaittik egitten doskue Zehau? Gure herrixan falta jakuzen eskubidien bila etorri nintzan oin 20 urte. Marokok adibidez eskubide asko ez daukaz, baina osasuna, baitta etorkinendako be. Eskubidiak neretzako bakarrrik ez, danondako eskatzen dittut.

ROMAN OLAIZOLA



Ez da bidezkoa. Bate-tik, ongizate gizartian osasuna ezin leike gaintetik pasatu. Bestetik, azkenian osasun prebentibua aplikatuz baino garestixagua urtengo dau larrialdixetan atenditzia. Honek lelengo eta bigarren mailako herriarrak sortuko dittu.

GIOVANNI GARCIA



Egixa esan ez dakitt ezer horren gainian. Dirurrik ez badago ondo dago mozketak egittia. Hobeto begiratu biharko litzake, sanidadia garrantzitsua da eta ezberdintasunak ekarri ahal dittu gizartian, baina zer egingo dotsagu ba!

MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Lakuesta Optika
Ikusmen arazozen frogak eta argibideak
Parafarmaziako produktuak
Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

MENDIZABAL okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

JUAN MARI KRRINDEGIA
943 75 24 40
MERCATU PLAZA
ESKERIAK ASKO PLAZENTXITARRAI GUGEN IZANDXKO KONFIANTZAGATIKI

“Plazatik Gaztetxera” hastear

Plazetan tokirik ez duten bertsolari gazteen arteko txapelketaren XI. edizioa hasiko da zapatu honetan Mutrikuo Gaztetxean. Eneko Beretxinagak ekainaren 1ean Leioan, eta ekainaren 15ean berriz Sorluzeko kanporaketa jokatu da eta finala Eibarko Gaztetxean ospatu da ekainaren 30ean.

Kultur ekitaldien agenda**Gaur, maiatzak 11****KONTZERTUA**

Hil Aiari, Fly Shit eta Konfliktu
22:30ean, Gaztetxean

Ant: Sorluzeko Gaztetxea

Maiatzak 12 eta 19, zapatua**ZAPATUETAKO AZOKA**

10:00etatik 13:00ra, Kontzejupean

Ant: Sorluzeko Udala eta Debemen

Maiatzak 16, eguaztena

Musika eskolako IKASLEEN
AUDIZIOA. 16:15ean, Zinean

Ant: Sorluzeko Musika Eskola

Maiatzak 18, barixakua**ELKARBIZITZA FESTA**

Plaentxi LH Ikastetxeko Elkarbizitza
Programa.

16:30etik 20:00ra, ikastetxean

Ant: Plaentxi LHI

Maiatzak 19, zapatua**PLAZAK BETE KARTZELAK HUSTUTZEKO**

Plaza Zaharra betetzeko gonbita, musikaz, dantzaz, aldarrikapenez, jolasez, bazkari herrikoiaz... Euskal Presoen Eskubideen Alde.

Ant: Sorluzeko Herrira

Maiatzak 22, martitzena**HITZALDIA**

“Sorluze elikadura-burujabetzarantz” Irati Trebiñoren eskutik.
18:30ean, udaletxean.

Ant: Sorluzeko Udala

Jokin Oregik MAX saria jaso du

Jokin Oregik eta Patxo Telleriak Espainiako Arte Eszenikoaren MAX sarietan euskarazko antzezlan onenaren egilearena jaso dute “LKM, Larria, kutsakorra, mendebaldekoa” lanarengatik. Oregik zuzentzen duen obrak farmazia industriaren gaineko gogoeta bultzatzen du: “A gripea zela eta gizartean sortu zen histeria komedia bidez azaldu nahi izan dut. Industria farmazeutikoaren neurrigabeko indarrak sortzen duen kezka publikoari islatu nahi izan diot”. Sari honekin, antzezlan bera baino urteetako lan ibilbidea saritu dutela azaldu digu. Ekainean Bilbon estreinatuko duten “Lingua Nabajorum” obra berria prestatzen dihardu orain. “Larria, kutsakorra, mendebaldekoa” ikusi nahi duenak badu oraindik horretarako aukera: ekainaren 1ean Leioan eta 5ean eta 6an Donostian. Saria jaso zuen momentuko bideoa:



Iturria: Jokin Oregi

**Trikiti doinuak Eskoriatzan**

Urteroko zitari hutsik egin gabe herriko 11 trikitilarik eta 6 panderojolek Eskoriatzan ospatu den Debagoieneko Trikitixa Egunean hartu zuten parte. 317 lagun elkartu zituen trikiti doinuak nagusi dituen festak. Sorluzetarek oholtza gainean “Bihotzeko begi beltz” kanta musikatu zuten.

Festa giroan agurtu zuten eguna, datorren urtean Elgetan elkartuko dira berriz.



Iturria: Itziar Burunza

Espaloia Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

PASCUAL CHURRUCA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORLUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61


Txapelik gabe ere txapeldun



Iturria: Carlos de Cos eta Pil-pilean

1 5-22 Titin III eta Merino II bikoteak irabazi du Eskuz Binakako txapela. Titinek esku-ratzen duen laugarrena da, Merinoren estreinekoa, 22 urterekin. Tamalez Laskuraini txapelak ihes egiten dion hirugarren aldia da. Penaz hartu du, baina txapelketa ona jokatu duela uste du. Finalen erakutsitako mailarekin ere pozik agertu da eta herri-tarren aldetik jaso dituen zorion eta animoak eskertu nahi ditu.

Udako txapelketak prestatzen

Finalaren zapore gazi-gozoaren ondotik, martxa betean hasi ditu entrenamendu lanak berriz. Datosen hilabeteetan udako norgehiagokak prestatzea eta irabaztea izango dira bere erronka nagusiak. Finaleko argazki gehiago eta bideoa: 

Ohorezko mailara igotzeko azken aukera du preferenteak

Karanbola handia behar du Sorako Erregional Preferenteak sailkapeneko bigarren postua lortu eta Ohorezko mailara salto egiteko. Aurreko norgehiagokan Eibartarrak taldearen kontra 1-2 galdu zuten. Bihar Getariako taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak eta irabaztea beharrezkoa izango dute bi puntuak bereganatu eta

sailkapenean gora egiteko. Bestetik, Zestoak Antzuolari irabazi egin beharko dio eta Ordiziak Zumaiakori. Emaizakaipatumoduan suertatuz gero, promozioa jokatuko ahalko dute Preferenteko mutilek. Aukera historikoaren aurrean klubeko arduradunek zale denak Orion 17:30ean jokatuko den neurketara gonbidatu nahi dituzte.

80 bolari lehiatuko dira San Andresen

San Andreseko bolari taldea.



Iturria: Angel Ibarluzea.

Azpeititik, Azkoititik, Debatik, Elgoibartik, Elgetatik eta Soraluzetik San Andreseko bolatokia igotako 80 bolarik hartuko dute parte bihar jokatuko den Hiru Txirlo Bolo Txapelketako 7. jartaldian. Lehiaketa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

EMAITZAK

PELOTA

Atxotegi – Aldape	22
Unamunzaga – Bengoetxea	10
Muguruza – Jauregi	22
Arribillaga – Zuazua	12

FUTBOLA

Iliintxa S.D. – Sora (Erreg. Pref.)	3-0
Sora (Erreg.) – Eibartarrak "B"	7-2
Hondarribia "B" – Sora (Jub.)	1-6
Sora (Kad.) – Aretxabaleta "B"	2-2
Sora (BHI mutilak) – Santa Teresa	4-4
Sora (BHI neskek) – Zumaiako F.T.	7-4
Sora (Erreg. Pref.) – Eibartarrak	1-2
Aretxabaleta "C" – Sora (Erreg.)	2-2
Sora (Jub.) – Urnieta	5-3
Bergara K.E. "B" – Sora (Kad)	6-5
San Patricio – Sora (BHI mutilak)	4-1
Zumaiako "B" – Sora (BHI neskek)	5-2

AGENDA

PELOTA

Domeka 13, 17:00etan Astelenan
Olazabal – Laskurain
Gorka – Zubieta

Debarroko txapelketako finalerdiak

Martitzena 15, 19:00etan Elgetan
Atxotegi – Aldape
Unamunzaga – Bengoetxea

FUTBOLA

Zapatua 12, 17:30ean Orion
Getariako KETA – Sora (Erreg. Pref.)
Zapatua 12, 17:00etan Ezozin
Sora (Erreg.) – Ontzerreri F.T.
Zapatua 12, 11:30ean Ezozin
Sora (Jub.) – Idiazabal K.E.

MENDI IRTEERAK

Domeka 13, 9:00etan Estazioetik
ERMUA – EGUARBITZA – ELGETA

ZORION AGURRAK



Marina Gil Azkona

Oso pozik gaiz zure jaunartze eguna alkarrekin ospatuko dogulako! Muxu mordua zure familixian partetik!



Perdiri Lete

Maiatzan 16xan 59 urte! Zorionak polittori eta muxu asko maitte zaittugun danon partez!



Eneko Alvarez Basauri

Maiatzan 11n 7 urte! Zorionak txapeldun! 7 belarri tirakada eta patxo mordo bat etzekuen partez.



June Eguren

Maiatzan 3an 9 urte!

Federico Eguren

Maiatzan 16xan 80 urte! Zorionak bikote, bihotz-bihotzez familixian partetik!



Zorionak poxpolinak!

zuen onduan urtiak betetzia plazer haundixa dalako pilmuxu ikaragarri pila eta urte askotarako!



Garazi eta Hiart Prieto

Maiatzan 10ian eta 13an urtebete eta 4 urte betetzen dozuezelako! Zorionak sorginak eta muxu asko



Ane Alberdi eta Ioritz Reglero

Maiatzan 17xan eta 18xan 3 urte betetzen dozuezelako, zorionak eta muxu asko etzeko danon partez!

LAN BILA

Lan bila egoera oso larrian

Ekonomikoki egoera oso larrian eta baliabiderik gabe dagoen 24 urteko emakume batek lana behar du lehenbailehen. Garbiketa lanak egiteko, nagusiak edo haurrak zaintzeko, zerbitzatzeko edota sukaldari lanak egiteko prest azaldu da. Interesatuak 943 75 13 04 telefonora dei dezakete eta Claudiagatik galdetu.

jaiotakoak

MARKEL CERREJON ATXA
URKO UNAMUNO FERNANDEZ



hildakoak

AGUSTINA GOMEZ GARCIA



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria: Elgetako Espaloia Kafe Antzokian Oskorri ikusteko bi sarrera**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Markel Fernandez**

► **Aitor Madrid**, herriko KZguneko arduraduna da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Teresa Eguren

ZERBITZARI KUADRILA ELEGANTIA

1 959ko otsailan 22xa da, maristetan. Don Luis Egurenen lehen meza haundixan (solemne) ostian, senidiak banketia gertatu zeben. Hemeretzi urteko neska kuadrila honi zerbitzeko eskatu zotsen. Alderen batetik amantalak inguratu eta halaxe egin zeben.

Bazkalostian, erretratua etartzera zoiazela, Don Tomas albaitarixa eta Jesus Maria Berrueta tartian sartu ziran eta modu honetan geratu da momentua betiketuta.

Goixan: Olga Martin, Inmaculada Elgueta, Rosarito Zabaleta, M^a Asun Placencia, Rosita Hernandez, Jesus M^a Berrueta, Angelines Alberdi, Teresita Eguren.

Behian: M^a Pi Peñin, M^a Tere Iñarra, Don Tomas (albaitarixa), Txaro Zurutuza, Socorrito Uriarte.



ITZIAR BOLUNBURU ARRIETA

SORALUZEN HIL ZEN,
2008KO MAIATZAREN 16AN
IV. URTEURRENA

“Argi bat itzali da
hemen lurrean,
berri bat piztu da
han, zeru ederrean,
beti jarraituko duzu
gure bihotzean”

Maitte zaittugunak!



JUANTXO HERMOSA ALBERDI

2010-06-29
II.URTEURRENA

ARRATE ZANGITU IGARZA

2011-05-07
I.URTEURRENA

“Izanaren izenean joan zineten,
zuen izenen izanak gurekin jarraitzen dute”

Maittasunez...
maitte zaittuztegunok.



DBH
Ondoren?
**Erdi Mailako
Heziketa Zikloa**
eta lanera edo
Ikasten
jarraitu...

...eta
BATXILERGOA
amaitzean?
**Goi-Mailako
Heziketa Zikloa,**
eta ondoren lanera
edo ikasten
jarraitu..

... goi-mailako
Heziketa Zikloaren
ondoren egiteko
pentsatutako
INGENIARITZA:
Txandakako
Ingeniaritza,
"ikasi eta lan"



Erdi-maila
- Mekanizazioa
- Mantenu
Elektromekanikoa * **berria**

Goi-maila (D eredu)
- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko
Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia* **berria**

Gradu berria *berria
Prozesu eta Produktu
Berrikuntzaren Ingeniaritza
(bideratzen)

Ate irekiak: maiatzaren 26an, 11:00etan

etortzeko deitu **943744132**ra edo apunta zaituz **www.imh.es** orrian

KM
Desing
Diseinua eta Formena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda
T. 943 75 30 11

Kontulan
Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarreak
Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82
20590 Soraluze
GIPUZKOA

MABE
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUM
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



Plaza Zaharrian

11:00tan
MURAL MARGOKETIA
PLAZA BARRIXAN

11:00Tatik 13:00Tara
UMEGUNIA

13:00tan
MUSIKA LASAIXA
ZUZENIAN

TXORIXUA TA SARGAROVA EGONGO DA

13:30tan EKIMEN
PARTEHARTZAILIA
DANTZARIXEK LAGUNDUTA

14:30tan
BAZKARI HERRIKOIA

TXARTELAK: GAZTELUPE, GILA, ARRANO ETA BOLIAN.
10 EDO TA 15ETAN SALGA!

19:00tan
KONTZERTUAK

EGUN HONTAKO EMANALDIXAK
ESKEINIKO DITTUZTEN DANAK
SORALUZETAR EZAGUNAK DIRA.
MUSIKARIXAK, DANTZARIXAK...

EGUNIAN ZIHAR: ESPETXE POLITIKIAN INGURUKO INFORMAZIÑUA, ELKARTASUN MATERIALAN SALMENTA...

HERIOTZ ZIGORRIK EZI! BIZI OSORAKO ZIGORRIK EZI!
EUSKAL PRESO TA IHESLARIXAK HERRIRA ESKUBIDE DANEN JABE!

Soraluzeko
Herrira